

“Ez dut barkatzen eguraldia ONCEko zenbakia ematen den bezala ematea”

Pello Zabala | Errementerinekoa

Musika aditu, konposatzaile, eguraldi-gizon, fraide, blogari... Bekatua litzateke Pello Zabala etiketatzea. Zutik ibiltzerako ikasi zuelako leitzen, ala sei urterekin dotrina atzekoz aurrera erreztatzeke gai zelako, gozo hitz egiten du. Gozo eta oparo, errazionamendu garaian jaio arren.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Noiztik ez da inor fraide etorri?

Hobe ez etortzea. Inor baldin badator, pentsatzen duzu, “hau sano dator ala ez da normala?”. Gaurko gizartetik ezin da etorri gure bizimodua egitera. Pentsa zer izango den hemendik hogeita bost urtera!

Fraide baino taberna gehiago egongo da Arantzazun!

Azken batean herriaren esku utzi beharra daukagu. Guk arte mundukoa dena babestera jo dugu, baina bestea... Orain ikusten ari gara elizak zenbateko gastua diren. Herri bakoitzak ikaragarri maite du berea baina ez dira beste munduko ezer. Nor atrebitzen da botatzera, ordea?

Jendea elizara joaten da ala?!

Gizartearekiko desfasea ikusten da elizan. Azken batean, gizartea bere bidean doa eta eliza atzeko trenean geratu da ghetto arraro bat, ez ebangelio ez ezer...

Ez esan euskal politika eta kulturaren hainbesteko pisua izan duena “ghetto arraro” bat dela...

Euskararekikoa eta euskal munduarekikoa batzuen tema izan da beti. Orain dela 50 urte Arantzazun ere erdaraz egiten zen!

Baina garai haietako alerta egoerak ez zituen eguraldiak eragingo...

Ez da normala albistegietan hamar minutu pasatzea euria egin duela esanez! Elurrarekin beste

horrenbeste gertatzen da. Proportzio falta ikaragarria dago.

Euskalmet dagoela, alegia.

Euskalmeten eta agentzien lana beharrezkoa da gaurko hedabideetan. Barkatzen ez diedana eguraldia ONCEko zenbakia ematen den bezala ematea da. Horrekin ez diozu inori ezer erakusten eta hori ez da euskaldunentzat egindako iragarpena. Inportantea haizea da. Haizerik ez badute ematen behartu egiten naute hemendik ordubetera berriz entzutera.

Klima aldaketa iragarri zigutenetik, ordea...

Lehen politikoei gastu handia ikusten zuten eta ez ziren sartzen, “ezetz, ez dagoela aldaketa klimatikorik”. Orain ikusi dutenean etekinerako bidea daukatela... Aaa!

Horiek ere ez ebangelio ez ezer!

Sekulako astakeria da bioerregaia garia edo kokoarekin ekoizten hastea! Bateko, jangaia hartzen dutelako, eta besteko, erregaia egiteko prozesua oso garestia delako. Hori nahikoa izango da kontsumitzaileoi txokolatea ez dakit zenbateraino garestitzeko.

Baina mendiko behatokira ere bloga iritsi zenetik...

Ez naiz ni izan bidea ikusi eta irten dena. Baina bloga bezalako jostailurik ez didate eman erregeek behin ere. ■